



6/2020 Jarraibidea, urriaren 20koa, Ogasun Zuzendaritzarena, COVID-19aren aurkako borrokan laguntzeko Osakidetzaren alde egindako dohaintzen zerga tratamenduari aplikatu beharreko interpretazioa onesten duena.

Irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 18. artikulua xedatzen du ezen foru arau horren III. tituluan jasotako zerga pizgarriak aplikatuko zaizkiela titulu horretan ezarritako baldintzak betez Arabako Foru Aldundiaren, beste foru aldundien, estatuaren, autonomia erkidegoen eta administrazio horien antzeko erakunde eta entitate autonomoen alde egiten diren dohaintzei, ekarpenei eta prestazioei.

Hortik ondorioztatzen da COVID-19aren aurkako borrokan laguntzeko Arabako Foru Aldundiaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen alde eginko dohaintzek, ekarpenek eta zerbitzuen doako prestazioek eskubidea emango dutela, besteak beste, irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arau horren 21. artikuluan eta hurrengoetan jasotako kenkariak egiteko.

Osakidetzari dagokionez, nahiz eta zuzenbide pribatuko erakundea izan, nola Gizarte Segurantzaren kudeaketaz arduratzen den erakunde publikoa den, zeinak bereganaturik baitaizka bere garaian Osasunaren Institutu Nazionalari (gaur egun Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionala) osasun arloan zegozkion eskumenak, ulertu behar da haren alde (Osakidetza) zuzenean egiten diren dohaintzak, ekarpenak eta zerbitzuen doako prestazioak, osasun arloan transferituta dituen eginkizun espezifikoak garatzen laguntzeko, jaso dezaketela irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 21. artikuluan eta hurrengoetan araututako mezenasgorako zerga pizgarrien onura.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. COVID-19aren aurkako borrokan laguntzeko Osakidetzaren alde egindako dohaintzei, ekarpenei eta zerbitzuen doako prestazioei irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 21. artikulutik 24. artikulura xedatutako zerga pizgarriak aplikatuko zaizkie.

Bigarrena. Bat etorri irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 25. artikuluan ezarritakoarekin,



kengarriak diren dohaintzen, ekarpenen eta zerbitzuen doako prestazioen eraginkortasuna justifikatzeko, aipatutako artikuluan jasotako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu erakunde onuradunak, bai eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez onetsitako informazio ereduare (182. ereduare).

Hirugarrena. Jarraibide honek 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazioetarako izango ditu ondorioak.

Gasteiz, 2020ko urriaren 20a

María José Perea Urteaga

Ogasun zuzendaria

Directora de Hacienda